



## 2021EKO EKAINAREN 11KO EBAZPENA

Gardentasunaren Foru Kontseilu honek aztertu du [REDACTED] (NANa: [REDACTED]; jakinarazpenetarako egoitza: [REDACTED]; jakinarazpenak eskueran jartzeko helbide elektronikoa: [REDACTED]) aurkeztutako erreklamazioa, informazio publikoa eskuratzeko 2020ko azaroaren 4an aurkeztutako eskaera ezestearen aurkakoa.

### AURREKARIAK

**Lehenengoa.-** Espedientean dagoen dokumentazioaren arabera, [REDACTED], 2020ko azaroaren 4an, informazioa eskuratzeko eskaera bat aurkeztu zuen posta bulego batean, honela:

«1.- Eman diezadazula honako honen berri: errenta aitortpena Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo egiten duten Ertzaintzako funtzionarioei dagokienez Aldundi honek 2011-12-13-14-15 ekitaldietan Estatuko Ogasunari Ertzaintzako langileei ordaindu beharreko kalte-ordainen gastuak direla eta egindako ordainketen (diru publikoa) zenbatekoak, urtearen arabera banakatuta. Ordainketa horiek zergapetuta daude eta ez ziren bere garaian egin.

2.- Eman diezadazula honako honen berri: Estatuko Ogasunari egindako ordainketa horien fiskalizazioaren eta kontabilitatearen data. Informazio hori ordainketa agirien bidez egiaztatu diezadazula».

**Bigarrena.-** Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Saileko foru diputatuaren 2020ko azaroaren 16ko idazkiaren bidez, eskaera hori ezestea ebatzi zen, honako hau dela eta: «Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 92. artikuluan xedatutakoaren arabera, ezin dizugula informazio hori eman, zure eskaera ez dagoelako Foru Ogasunak informazioa fiskala eman dezakeen kasuen artean».

**Hirugarrena.-** Azaroaren 24an, interesdunak beste idazki bat aurkeztu zuen posta bulegoan. Bertan, Arabako Lurralde Historikoko sektore publikoaren gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren zenbait artikulua transkribatu zituen, eta horietatik ondorioztatu zuen bere eskaera zuzenbidearekin bat zetorrela, eta honako hau gaineratu zuen: «Ez dut eskatu inolako herritar edo funtzionarioen informazio fiskalik. Nire eskaera Arabako Foru Aldundiak Estatuko Administrazioari egindako ordainketei buruzko informazio kuantitatiboaren ingurukoa da».

Idazki hori Arabako Foru Aldundiaren Erregistro Orokorrean jaso zen 2020ko abenduaren 1ean, eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontuen Saileko foru diputatuari bidali zitzaion.



Azkenik, foru diputatu horrek, 2021eko urtarrilaren 28ko idazkiaren bidez, berriz ere ezetsi zuen eskaera, eskatutako informazioa ez zela publikoa iritzita, eta, adierazi zuen, nolana ere, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorraren 92. artikulua arabera, ezin dela informazio hori eman, ez baitago arau horretan aurreikusitako informazioa emateko kasuen artean.

**Laugarrena.-** 2021eko otsailaren 17an, interesdunak Gardentasunaren Foru Kontseiluari zuzendutako erreklamazioa aurkeztu zuen posta bulegoan, informazio publikoa eskuratzea ukatzeagatik, lehen aipatutako dokumentazioaren kopiarekin batera.

### ONARRI JURIDIKOAK

1. Erreklamazioak egindako eskaerari dagokionez, gaiari sakonki heldu aurretik, aztertu behar da ea eskaerak betetzen dituen erreklamazio hori aurkezteko beharrezko diren betekizunak, zeinak Gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 35.5 artikulua arabera oinarritzko legerian ezarrita baitaude, hau da, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko Legean (GIPEGOL).
2. Erreklamazioa aurkezteko epeari dagokionez, GIPEGOLEk xedatzen du, 24.2 artikuluan, erreklamazioa aurkezteko epea hilabetekoa dela aurkaratutako egintza jakinarazten den egunaren biharamunetik hasita, eta, epe hori bete zuen erreklamazioak; izan ere, Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren idazkia 2021eko urtarrilaren 28koa da, eta Gardentasunaren Foru Kontseiluari zuzendutako erreklamazioa 2021eko otsailaren 17an aurkeztu zuen erreklamazioak posta bulegoan.
3. Bat etorritik 1/2017 Foru Arauaren 35.3 artikuluan eta lehenengo xedapen gehigarrian eta Foru Gobernu Kontseiluaren otsailaren 21eko 5/2017 Foru Dekretuan xedatutakoarekin, Gardentasunaren Foru Kontseiluak eskumena du foru sektore publikoko edozein erakundek hartutako ebazpenen aurka gardentasunaren arloan egiten diren erreklamazioak aztertzeko eta ebazteko, eta ebazpen horien artean dago errekurritutako idazkia, foru agindu baten bidez eman ez zen arren (hori ezin zaio erreklamazioari egotzi).
4. Behin egiaztaturik erreklamazioak erakundea Gardentasunaren 1/2017 Foru Arauaren mende dagoela, Gardentasunaren Foru Kontseiluaren eskumen subjektiboa eta erreklamazioaren legitimazioa, egiaztatu behar da ea baden egiaz informazio publikoaren eskaera bat; izan ere, 1/2017 Foru Arauaren eta otsailaren 21eko 5/2017 Dekretuaren arabera, kontseilu horrek ez baitu eskumenik bestelako auzirik aztertzeko.



Erreklamazioaren xedea informazio publikoa eskuratzeari buruzko esanbidezko ebazpena da, hau da, aipatutako 2021eko urtarrilaren 28ko idazkia, zeinaren bidez ez baitzen onartu erreklamatzailaren eskaera.

5. Otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauaren 18. artikulua araberaren arabera, informazio publikotzat jotzen da honako hau: «foru arau honetako 3. artikuluko subjektuek beren eginkizunetan sortu edo jaso eta euren esku dituzten edukiak eta dokumentuak, formatua edo euskarria gorabehera».

Beraz, eskabidea egiten den unean dagoeneko badagoen eta foru arauaren mende dagoen erakunde edo entitate batek eskuragarri duen informazioan oinarrituta egon behar dute informazio eskaerak, eta, gainera, informazioa erakunde edo entitate horrek haren eskumenak erabiliz egindakoa edo eskuratutakoa izan behar da.

6. Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuaren idazkian adierazten da eskatutakoa ez dela informazio publikoa, eta, nolahi ere, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 92. artikulua araberaren ezin dela informazio hori eman, ez baitago arau horretan aurreikusitako informazioa emateko kasuen artean. eta, nolahi ere, Arabako Zergei buruzko otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arau Orokorren 92. artikulua araberaren ezin dela informazio hori eman, ez baitago arau horretan aurreikusitako informazioa emateko kasuen artean.

Alabaina, baieztapen hori indargabetzen du Auzitegi Goreneko Administrazioarekiko Auzien Hirugarren Salak otsailaren 24ko 257/2021 Epaian ezarritako doktrinak:

*«...la LGT y singularmente, su artículo 95 -en el que se sustenta la decisión denegatoria- consagran una regla o pauta general de reserva de los "datos con trascendencia tributaria" en el ámbito de las funciones de la Administración Tributaria -la gestión y aplicación de los tributos- pero no permiten afirmar que contengan una regulación completa y alternativa sobre el acceso a la información que implique el desplazamiento del régimen general previsto en la Ley 19/2013, de Transparencia, norma básica aplicable a todas las Administraciones Públicas.*

*Dicho artículo 95 LGT se inserta en la Sección 3ª sobre "colaboración social en la aplicación de los tributos" del capítulo I, sobre "principios generales" en el Título I de "la aplicación de los tributos" y se refiere al carácter confidencial de los datos obtenidos por la Administración tributaria en el desempeño de sus funciones con la finalidad de aplicación de los tributos o de imposición de infracciones. El aludido artículo de la LGT además de establecer la mencionada regla, contempla trece excepciones y supuestos en los que se permite el traslado o cesión de la información tributaria a terceros -apartados a) a m)- que en la perspectiva de nuestro enjuiciamiento de acceso no son un numerus clausus o un listado cerrado de cesión de datos a terceros. Por su parte, el artículo 95 bis introducido por la Ley 34/2015, contempla un nuevo supuesto de publicidad en ciertos casos de infracción tributaria. No cabe concluir, pues, del tenor de tales preceptos, 95 y 95 bis, ni del contenido de los precedentes artículos 93 y 94 LGT -que se refieren a la*



*obligación de los ciudadanos de informar a la Administración tributaria- que exista una regulación específica propia y exhaustiva del sistema de acceso a la información por parte de los ciudadanos en este ámbito. Los artículos citados se circunscriben a recoger la pauta general de la reserva de datos tributarios, regla que no es óbice para que ante el déficit de regulación y tutela del derecho de acceso a la información, opere ex apartado 2º de la Disposición Adicional 1ª, la mencionada Ley 19/2013 que, es norma básica en materia de acceso a la información pública, aplicable a todas las Administraciones Públicas en los términos del artículo 149. 118 CE, y que contribuye, en fin, a la transparencia del sistema tributario y permite realizar el derecho reconocido en el artículo 105 c) CE.*

*Esto es, el artículo reseñado de la LGT y demás disposiciones que se invocan se refieren a la reserva de los datos que obtiene la Administración para la gestión y ejercicio de la actuación tributaria entendida en un sentido amplio, pero no conllevan per se la inaplicación de la Ley de Transparencia, por no ser dichas exiguas e insuficientes disposiciones -la prevista en el artículo 85 que establece el deber genérico de informar a los obligados tributarios de sus derechos y obligaciones, y en los artículos 86 y 87, sobre la forma en que se instrumenta esta obligación- asimilables o equivalentes a un régimen específico y completo de acceso ni, en fin, pueden conllevar una prohibición del ejercicio de este derecho a los ciudadanos ex artículo 105 CE a obtener cierta información que, aún concerniendo a aspectos tributarios, responde a un interés legítimo o público -que se refleja en la ley de Transparencia-.*

*La ley General Tributaria ha de interpretarse en el conjunto del ordenamiento jurídico y a la luz de las nuevas garantías introducidas en la Ley 19/2013, de Transparencia, lo que lleva a concluir que su regulación no excluye ni prevé la posibilidad de que se pueda recabar información a la Administración Tributaria sobre determinados elementos con contenido tributario, al ser de aplicación la DA 1ª de la Ley de Transparencia, como sucede en los supuestos en el que la información no entra en colisión con la el derecho a la intimidad de los particulares -a los que se reconoce el derecho a la limitación de acceso en el artículo 34 de la propia Ley General Tributaria-, o cuando, los datos que obran en poder de la Administración pueden ser necesarios para que los ciudadanos puedan hacer valer sus derechos, o puedan estar informados de la actuación pública, información que ha de ajustarse a los límites que la propia Ley de Transparencia establece en su artículo 14 y a la protección de datos del artículo 15.*

*Lo anteriormente expuesto nos lleva a afirmar que no se contiene en la Ley General Tributaria un régimen completo y autónomo de acceso a la información, y sí un principio o regla general de reserva de los datos con relevancia tributaria como garantía del derecho fundamental a la intimidad de los ciudadanos (art 18 CE). Por ende, las específicas previsiones de la LGT sobre confidencialidad de los datos tributarios no desplazan ni hacen inaplicable el régimen de acceso que se diseña en la Ley 19/2013, de Transparencia y Buen Gobierno (Disposición Adicional 1ª)».*

Halaber, Comissió de Garantia del Dret d'accés a la Informació Pública erakundeak honako hau adierazi du:



*«la previsión de confidencialidad del artículo 95 LGT, como cualquier otro límite legal al acceso establecido por la propia LTAIPBG o por cualquier otro ordenamiento legal vigente, no justifica por su sola concurrencia la exclusión total, automática y sin ponderación posible de todos los datos con trascendencia tributaria. Entenderlo de otro modo significaría admitir la exclusión del alcance del derecho de acceso a la información pública de un ámbito entero y completo de la gestión pública, lo que resulta incompatible con los principios y la propia regulación sustantiva del derecho de acceso y con la finalidad de la legislación de transparencia, de someter a la administración pública al escrutinio de su actividad pública, especialmente en la gestión de los recursos públicos.*

(..)

*Finalmente, debe considerarse que, cuando la información tributaria se dé disociada y no pueda relacionarse con una persona física o jurídica identificada o identificable, la aplicación del límite de confidencialidad perderá su finalidad, de preservar el derecho de reserva de la persona obligada tributaria y, no sirviendo a este fin, no se justificaría la confidencialidad de la información que se impone a la Administración tributaria, precisamente para garantizarlo, en el artículo 95 LGT».*

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren Foru Kontseiluak, aho batez, ebazpen hau eman du:

### **EBAZPENA**

Baiestea [REDACTED] aurkeztutako erreklamazioa, bat etorri Arabako Lurralde Historikoko Gardentasunaren, herritarren parte hartzearen eta gobernu onaren otsailaren 8ko 1/2017 Foru Arauan xedatutakoarekin.

Administrazio bidea amaitzen duen ebazpen honen aurka administrazioarekiko auzi errekurtsua aurkez daiteke Gasteizko Administrazioarekiko Auzietako Epaitegietan, bi hilabeteko epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera.

Lexuri Ugarte Aretxaga  
**Mahaiburua**

Inés Vadillo Alzola  
**Kontseilukidea**

Daniel Martínez Monge  
**Kontseilukide-idazkaria**